



Esp. kodea: 2016SAPL0010

Gaia: PLENOA 2016/10/04
Hasiera eguna: 2016/09/27

AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2016ko urriaren 4a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2016ko irailaren 13a egindako bileraren akta onartu du.

2.- ARRASATEKO HIRI ANTOLAMENDUAREN EGITAMU OROKORRAREN ONARPENAREN AURKA “VODAFONE ESPAÑA, S.A.U.” ENPRESAK JARRITAKO 437/2016 ZK.KO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOAN AGERTZEKO PROPOSAMENA. (2016HJKA0003)

Aho batez, Vodafone España SAUk tartearritako administrazioarekiko auzi errekurtsioan bertaratzea erabaki da, hala nola, abokatu eta prokuradoreak izendatzea

3.- 2017 URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK ONTZAT EMATEKO PROPOSAMENA.

Aho batez, gaia mahai gainean uztea erabaki dute.

4.- UDALAREN ORDEZKARI IZENDATZEA MARIA UBARRETXENA CID ANDREA ETA OSCAR GARCÍA HERRILLO JAUNA HAINBAT ORGANOTAN. (2015SKOR0001)

Behin Euskal Legebiltzarrerako hauteskundeak pasata eta bi gobernu kide hauek hautatuak izan ez direnez, aurrez uko egin zieten izendapenetan izendatzen dira aho batez . Honakoetan:

- Maria Ubarretxena Cid:
 - Deba Bailarako Industrialdea, S.A. Administrazio Kontseiluko Lehendakaria
 - Garaia Berrikuntza Guneko Elkarrekin Sustatzailea. Errektore Kontseiluko kide
 - CEI SAIOLAN, S.A. Administrazio Kontseiluko kide.

- Oscar García Herrillo:
 - CEI SAIOLAN, S.A.. Administrazio Kontseiluko ordezkari kidea
 - SURADESA.S.A. Administrazio Kontseiluko kidea

5.- LANPOSTUAREN ZERRENDAREN ALDAKETA PUNTUALA.(2016PRPT004)

Aldeko 13 botorekin (EAJ-PNV, PSE-EE eta BALEIKE) eta kontrako 8rekin (EH BILDU eta IRABAZI) Lanpostuen Zerrendaren aldaketa puntuala onartu egin da. Honakoa:



Esp. kodea: 2016SAPL0010

Gaia: PLENOA 2016/10/04
Hasiera eguna: 2016/09/27

- **‘Pertsonal burua’** izeneko lanpostua, 9 kodea duena, pasatuko da, lanpostuak hornitzeko lehiaketetan, Arrasateko Udaleko karrerako funtzionarioentzat egotetik Euskal Autonomia Erkidegoko edozein entitate publikotako karrerako funtzionarioentzat egotera, bere horretan mantenduz gainontzeko baldintzak lanpostua lortzeko, izaera juridikoa eta gainerako ezaugarriak.

Arrasaten, 2016ko urriaren 4a

IDAZKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta